



2021-2022 ko HAURTZARO- GAZTARO ZERBITZUAREN BARNEKO ARAUDIA

Haurtzaro-Gaztaro zerbitzuaren zuzendaritza zure zerbitzuko da:
05.59.41.97.47 telefono zenbakira, 06.47.90.54.31 telefono zenbakira edo
alsh@ahetze.fr helbide elektronikora

A. Antolakuntza orokorra

Nahi baldin baduzu zure haurraren izena eman zerbitzu batean edo gehiagotan, aski duzu zuzendaritzak duen dosierra galdegitea eta betetzea gehi ondoko dokumentuak urtero berritzea: asurantzak, babes pertsonala, mutualitateko karta, CAF edo MSAko familia-zatidura **EDOZEIN ALDAKETA IZAN EZKERO ZUZENDARIA ABISATU BEHAR DA (HELBIDEA, TELEFONO ZENBAKIA, EGOERA PERTSONALA,...)**

A.1. Segurtasuna, ikastetxean sartzeko

Haurrak dira haien pusken arduradun bakarrak. Ikastetxean, akanpaleku edo aktibitate batean zehar Ahetzeko herriko etxeak ez du edozein ebaste, galtze edo txartzeren ardurik. Debekatua da balorezko gauzak (joiak,...), lanjerosak diren gauzak (ganibetak, berina, supiztekoak...) eta jokoak ikastexera ekartzea.

Haien eskutan ezarria den materialaz arduratzen dira gazteak. Sekulan gaztearen erantzukizun zibil segurantzak ez baluke bere gain hartuko materialaren erreparatzea gaztearen familiaren gain litzateke.

A.2. Garbitasuna, osasuna, elikadura

Sanitario fitxan haien haurraren edozein osasun arazoa (izan pasatua edo gaurkoa) seinatu behar dute burasoek.

Taldearekiko irrisiku bat izan daitekeen edozein osasun arazoa seinatua izan behar da eta ondorioztat gaztearen izen emaita errefusatzeko ahalko da.

Ez da sendagailurik emana izanen. Bakarrik asma bezalako tratamenduak edo PAI delakoak onartuak izanen dira ordenantza bat aurkeztu ezker.

Dieta berezi edo hazkurri alergia kasuetan zuzendaritza, berehala, jakinean izan behar da. PAI delako bat segitzen badu haurrak **burasoen gain da egunero bazkari oso baten hornitzea baita ere PAI delakoari buruzko barneko araudia (eskuragarria herriko etxeko zebitzuei galdeginez edo www.ahetze.fr webgunean) izenpedurik itzultzea.**

Abereak ez dira onartuak (salbu aktibitate berezi batzuen kariatara).

Ikastetxean debekatua erretzea edota zigarreta elektronikoko batean erabiltzea. Debekatua da alkohola eta sorgarriak ekartzea.

Elkarbizitzarako printzipioak errespetatuak izan behar dira.

A.3. Rolak eta izaiteko manerak

Onginahiaz beterik errezibitzen dituzte haurrak Haurtzaro-Gaztaro zerbitzuko langileek. Haurrak babesten dituzte eta denon arteko errespetua lantzen dute.

Haur bakoitzak bortizkeria ez du erabili beharko eta elkarbizitzaren arauak errespetatu beharko ditu. Besteak beste behar dute berteak errespetatuz mintzatu, eskutan duten materiala eta egoitzak zaindu, ikasi dituzten garbitasun eta segurtasun arauak gauzatu.

Ikastetxean arituko den kanpoko pertsona bakoitzak gainean aipatutako printzipio orokorrak errespetatu behar ditu.

Herriko langileek ahal duten guztia egiten dute haurrak baldintza onak izan ditzan bere hazteko prozesuan bai ernatze mailan bai loratze mailan.

Biziki garrantzitsua da izaiteko manera onak (lasaitasuna, maina, elkartasuna, errespetua) sustatzea eta agerian ezartzea. Elkarbizitzan haurren balorazioa eta berari erantzukizunak ematea lagungarriak dira haurrak kolektibitatearekin duen lotura indartzeko giro sano batean.

Alderantziz, aktibitateak tratatzen dituzten bizimoduei, barneko arau hausteei, eta batez ere fisikoki edota mentalki haur bat hunkitzen duten erasoei modu egoki batean erantzunen die ikastetxeko langileek eta burasoeek berehalazko salaketa bat jasoko dute.

Haurren segurtasunari begira, langileek lanjerosa atxemaiten duten edozein egintza debekatzen ahalko dute, abisurik eman gabe.

Denon errespetuan; haurrak, ikastexera eramaiten dituzten burasoak eta ikastetxean haurretaz arduratzen diren langileak jantzi egokiak izaitea behartuak dira.

Aktibitatearen arabera haurren jantziak egokitu beharko dira eta batez ere kanpoko aktibitateentzat.

Eguerdiko tarte garrantzitsua da, bazkal denboran haurren arteko harremanak, bizipoza, bizi praktika (lehen mailako hurrek eginbehar batzuk dituztelako zerbitzuan parte hartuz) lantzen baitira elikatze hezkuntza batera. Modu egoki batean jateko eta proposatu zaizkien hazkurriak dastatzeko akuilatuak dira haurrak. Dietalari batek ditu menuak prestatzen eta "tokiko hazkurri bat eta bio hazkurri" proposamena errespetatzen du EGALIM legearekin bat egiteko xedearekin.

Haur baten izaiteko manera ez bada egokia, familiarekin harremanetan sartuko dira zerbitzuaren zuzendaritza eta herriko etxea, elkarrekin aterabide egoki baten atxemaiteko xedearekin. Larritasunaren arabera, aldi bateko kanporatze bat gauzatzen ahalko da.

A.4. Kolektibitatearen ardura

Zerbitzuen ardura bakarrik publikoari irekia den ordutegian engaiatua da eta bakarrik arauekin bat egiten duten haurrentzat.

Bakoitzaren errespetuan araudi honen gauzatzeaz arduratzen dira auzapeza jauna, zuzendaritza eta herriko langileak.

Greba egunetan (erakaslegoaren %25a baino gehiago) herriko etxeari doakio harrera zerbitzu baten antolatzea lanean diren langile kopuruaren arabera, aisialdiko prezioen arabera faktura eginez.

Zure haurra hor ez denean, egin dituzuen zerbitzuetako erreserbak ezeztatu behar dituzue zerbitzuen zuzendaritzekin harremanetan sartuz (haien ordutegietan).

A.5. Fakturatze eta ordainketa

Familia bakoitzari hilabeteko faktura bat egiten zaio.

Txanpenez, txekez "Trésor Public" izenari zuzendua edo CESU delako titulu baten bidez (bakarrik haurzaidegirako eta aisialdi zentrorako) egingarriak dira ordainketak. **Posible da ere banku etxeko biramendu baten plantan ezartzea (horretarako harremanetan sartu zerbitzuaren arduradunarekin).**

PAGATZEKO EPEA BEHIN PASATURIK, HERRIKO ETXEAK EZ DU GEHIAGO ORDAINKETARIK ONARTUKO. ESKERTZEN ZAITUZTEGU ZUEN ORDAINKETA HAZPARNEKO DIRUZAINTZARI IGORTZEA PAGATZEKO OROITARAZTE GUTUNAREKIN BATERA.

Zerbitzu guzien prezioak eskuragarriak dira zerbitzuen zuzendaritzekin harremanetan sartuz edo www.ahetze.fr webgunean.

B. Zerbitzuen ibilera

B.1. Zerbitzuen ordutegiak

Ordutegietatik at, debekatua da ikastexean sartzea.

Kanpoko taldeek auzapezaren baimena beharko dute izan ikastetxean sartzeko.

ZERBITZUAK	ORDUTEGIAK
Kantina	Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan goiz.11ak eta erdietatik arr.oren bata eta erdi arte.11ak eta erditan ama eskola/ eguerdi eta 10etan lehen maila/ oren bata 10 guttitan: lehen maila
3 eta 11 urteen arteko haurzaindegia	Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan Goizeko 7ak eta erdietatik goiti eta arratsaldeko 6ak eta erdi arte *
Asteazkenetako haurzaindegia	Goizeko 7ak eta erdietatik arratsaldeko 6ak eta erdi arte
3 eta 12 urteen arteko aisialdi zentroa	Goizeko 7ak eta erdietatik arratsaldeko 6ak eta erdi arte
12 eta 17 urteen arteko « Spot » aisialdi zentroa	Ikasturteko ostiraletan : arr.6ak eta erdietatik asteko 8ak arte Oporretan eta autofinanzamendurako ekintzetan: ordutegiak komunikatzekoak

* Segurtasunarentzat, arratsaldeko 5ak 20 guttitan oraindik eskolan izanen diren haurrak (izan lehen mailakoa ere) haurzaindegiaren arduraduraren menpe izanen dira eta arr. 4ak eta erdietatik goiti zerbitzua pagatu beharko da.

B.2. 3 eta 12 urteen arteko haurren arribatze eta abiatzeen moldeak

ARGI DA SEGURTASUN ETA ARDURADUN ARRAZOIENGATIK HAURRA HERRIKO LANGILE BATEKIN UTZI BEHAR DA, BALDINTZA HAU EZ BADA ERRESPETATZEN FAMILIEI ERREFUSATZEN AHAL ZAIE ZERBITZUAREN ERABILERA.

Burasoek (eta ordezkari legalek) bakarrik haurrak berreskuratzen ahal dituzte, salbu justiziako kontrako iritzi bat baldin bada. Bertze edonorentzat, ahalorde bat bete beharko da (**izen emaitako dozierraren 3 gehigarri**). **Ahalorderik gabe, haurra ez da ikastetxetik aterako.**

Haurzaindegian haurra behin berreskuraturik, debekatua da egoitzan ibiltzea. Aisialdiko aktibitateentzat kanpotik pasatu behar da.

2 garren eta 3 garren ikastaroetan eskolatuak diren haurrak bakarrik joan daitezke ikastetxeko haurtzaro gunera tokiko elkarteek proposatutako eskolatik kanpoko aktibitatean parte hartuz. Lehen ikastaroan eskolatuak diren haurrak aktibitate horietara joan daitezke antolakuntza berezi batekin. Ardurari buruzko paperak (lehen, 2garren eta 3garren ikastaro) eskuragarriak dira zerbitzuaren zuzendaritzarekin harremanetan sartuz.

Haurzaindegitik alde egiteko haurrak ez dira joaiten ahalko adingabeko batekin. Egunero erregistroa bete beharko duzu haurraren arribatzeko eta joaiteko tenorekin (krisi sanitarioaren arabera). Hesteko tenorea, arr. 6ak eta erditan, errespetatu behar da. Beranta guztiak idatziak izanen dira eta 3 garrenetik goiti fakturazioari emendatze bat aplikatzen ahalko zaio

3 eta 12 urteen arteko haurrentzat aisialdi zentrorako eta asteazkenetako:

Arribatzeak - goiz. 7ak eta erdietatik goiz.9ak eta laurden arte
- arr.oren bata eta erdi eta arr.2ak eta laurdenen artean
- arratsalderako bazkariarekin: eguerdian

Abiatzeak - eguerditan bazkaririk gabeko egunerdirako
- arr. oren bata eta erdi eta arr.2ak eta laurdeen artean bazkaririk gabeko egun erdirako
- arr.5ak laurden gutti eta 6ak eta erdiren artean.

C. Zerbitzuetan izen emaitako moldeak

Zerbitzu guztientzat, **haurrak ez badu baliodun izen emaiterik ez da onartua izanen.**

Izen emaitak telefonoz egingarriak dira **06 47 90 54 31** / 05 59 41 97 47 telefono zenbakietara deituz edo mezuz ondoko helbide elektronikora alsh@ahetze.fr , libre diren tokien arabera.

Hartuak izanen diren haurren kopurua laneko diren langile kopuruaren arabera izanen da. **Eskaera egiturak dituen tokiak baino handiagoa baldin bada lehentsaun hautuak egiteko atxikiak izanen diren kriterioak horiek dira : maiztasuna ikastetxean eta sozial arloko kriterioak.**

C.1- 3 eta 11 urteen arteko haurrak

Kantina eta aisialdi zentrorako izen emaitak :

Izen emaita eginen da edo urte osorako edo hilabeteka. Buraso guziek izen emaitako dosierran diren 5 (urte osorako izen emaita) edo 6 (izen emaita hilabeteka) gehigarria bete beharko dute eta zuzendaritzari eman lehengo hamabostekoan ondoko hilabeterendako. 6 gehigarria eskuragarria da www.ahetze.fr webgunean.

Izen emaita ikasturterako egin bada, edo egun finko batzuetarako, gehigarria izen emaita gisa kontsideratua da. Aldaketa zonbatzuk posible dira ikasturtean zehar.

Harrera zentro horiek ofizialak dira frantziar estatuaren zerbitzuetan, eskualdeko haurtzaro, engaiamendu eta kirol DRAJES delako akademian beraz araudi berezi bat errespetatzen dute bai langileen formakuntza mailan bai arduradunen kopuruaren aldetik.

Eskola denboran izen emaitak asteazkenetarako :

Izen emaitak edo ikasturte osorako egiten dira edo hiruhilabeteka (**Izen emaitako dosierran 7 gehigarri**).

Izen emaitak oporrendako eta gaualdi bereziendako:

Oporrak hasi baino lau aste lehenagotik hasiko dira izen emaitak

C.2- 12 eta 17 urteen arteko

nerabeendako "spot"

Ahezta guztiei idekia baita ere ahetzeko eskola publikoan izan direnei, nahiz eta kolegioan sartuak horren bidez tokiko gazteen arteko harremanak indartzea helburutzat dugu.

Aski da animatzaileari izen emateko dosierra beterik eta izenpeturik itzultzea, behar diren dokumentuekin batera.

Gertakari eta gaudietan parte hartzeko beharrezkoa da beheko baldintzak betetzea:

- izen emateko saria pagatua izatea,
- zerbitzuari izena emana izatea (izen emateko dosierrako 1 gehigarri),
- auto-finantzamendu 3 gertakarietan parte hartua izana,
- gaudirako fresak pagatuak izatea,
- barneko aruadi hau errespetatu.

Izen emateko dosierra zuzendaritzari itzultzea 10 euroekin kideztarako.

Opor eta gertakariendako izen emateak (gualdia eta kanpaleku):

Izen emateak **oporak baino lau aste lehenagotik** hasiko dira.

Udako oporrendako, « Spot » asteka 3 egun erdiz idekia da eta 3 egunez, berriz finkatzekoak beste opor txikietan zehar.

D. Zerbitzu desberdinei ezeztatzeko moldeak.

Ikasturtean zehar aldaketak egitea aizu da beheko moldeak errespetatuz. Bertzela izen emate guztiak kontutan hartuak izanen dira.

Zerbitzu bat ezeztatzeko, aisialdi zentroko zerbitzuarekin harremanetan sartu beharko da, edo 06 47 90 54 31 telefono zenbakira eta helbide elektronikoa honetara alsh@ahetze.fr

Epe horietan bakarrik:

- Kantina: egunero goizeko 8ak eta erdi aitzin
- Haurzaindegia beranduenik bezperan goizeko 11ak eta erdi aitzin
- Asteazkenendako : Ostiralarekin ondoko asteazkenarendako
- 3 eta 17 urteen artekoentzat / Kanpoko gertakariendako (gualdia): 2 aste

Epe horiek behin pasaturik zerbitzua pagatu beharko da saldu mediku agiri baten aurkeztuz edo burasoek idatzitako agiri bat emanez herriko langileei (ondoko 2 egunetan) eskola nez ziren haurrendako (eri edo falta izan).

Diru mailan pirino atlantikoetako familien laguntza kutzak (CAF) du ahetzeko herria laguntzen.



Beheko partea izen emaitako dosierarekin batera eman behra duzue eta izenpeturik

2021-2022ko BARNE ARAUDIAREN ONARPENA

Nik, behean izenpeturik, Deitura....., Izena ,
haurren arduraduna :

DeituraIzena ,
haurren arduraduna :

Deitura..... Izena.....

- Nerabearen arduraduna:

DeituraIzena..... ,

- Nerabearen arduraduna:

Deitura..... Izena..... ,

2021-2022 irakurri dut eta onartzen dut

.....n egina,an

Arduradunaren izenpedura :

Hurrei zuzendua (lehen mailan eskolatua eta nerabea)

Nik (guk)

DeituraIzena.....,

Deitura.....Izena..... ;

2021-2022 ko barne araudia irakurri dugu eta onartzen dugu.

.....n egina,n.

Izenpetzea(k):

BAKARRIK nerabegaien harrerarendako moldeak (hautatutako karratua markatu):

Gazteak baimena badu ikastetxetik bakarrik arribatzeko eta joaiteko,

Gazteak ez du baimenik bakarrik joaiteko ikastetxetik.